

Diru-iturriak

Egia esan, proiektu honen helburua ez da erabat lukratiboa. Hori baina garrantzitsuagoa den paper bat jokatzeko baitu gizartearen hobekuntzan. Hori dela eta, diru-sarrerak ez dira oso ugariak. Dena den, gainontzeko enpresa guztiek bezala, aurrera jarraitu ahal izateko eta kostuak berdindu ahal izateko, zenbait erabaki hartu behar izan dira, hala nola, iragarkiak txertatzea webgunean edota harpidetza kobratzea ia sinbolikoa den prezio batean: 20€ urteko. Horrez gain, udaletxea prest dago diru-laguntza bat eskaintzeko, azken finean, herriaren onurarako proiektu bat baita. Bestalde, noizean behin, ekintza bereziak antolatzen dira, eta bertan jasotako dirua enpresaren garapenean inbertitzen da. Ekintza horien xedea webguneko erabiltzaile guztiak biltzea da, aurrez aurre ezagutu daitezkeen euren arteko konfidantza eta elkarlana hobetu dadin. Gainera, horrelako ekimenek proiektuari publizitatea eman eta bezero berriak erakartzen dituzte. Hortaz, bazkari herrikoietatik hasita mota guztietako jaialdiak antolatu izan dira: kontzertuak (webgunearen erabiltzaile diren artisten eskutik), karaokea, herri-kirol txapelketak, sukaldaritza tailerrak... Dena kasuan kasuko herrietako udaletxeen laguntzaz, noski.